



DONOSTIAKO HONDARTZEN IKS-REN (EMAS IV) 2020KO INGURUMEN ADIERAZPENA

2021KO EKAINA



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**



DONOSTIAKO HONDARTZEN INGURUMEN **KUDEAKETA SISTEMA**

- 1. DATU OROKORRAK**
 - 1.1. Aurkezpena
 - 1.2. Testuingurua eta arriskuen eta aukeren analisia
 - 1.3. Estrategia berri bat
 - 1.4. IKSren irismena
 - 1.5. Ingurumen Kudeaketa Sistemaren (IKS) arduradunak
 - 1.6. Ingurumen Politika
 - 1.7. IKSaren deskribapena
 - 1.8. Aurrekontu-partidak
 - 1.9. Ingurumen-alderdi esanguratsuak 2020
- 2. INGURUMEN PORTAERA ETA PLANIFIKAZIOA EREMUKA**
 - 2.1. Hondakinak
 - 2.2. Ura
 - 2.3. Energia
 - 2.4. Ingurumen Informazioa
 - 2.5. Ingurumen portaera: bainurako uren kalitatea
 - 2.6. IKSren hobekuntzak
- 3. LEGEZKO BETEKIZUNAK ETA HONDARTZEN IKS-RI APLIKA DAITEZKEEN BESTE BATZUK**
- 4. ERANSKINAK**
 - 4.1. Ingurumen-alderdiak identifikatzeko eta ebaluatzeko metodoa
 - 4.2. Adierazleak kalkulatzeko alderdi metodologikoak
 - 4.3. Ingurumen portaeraren beste adierazle batzuk
 - 4.4. 2021 urteko programa
- 5. ERAKUNDEAREKIN LOTUTAKO BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK**
- 6. INGURUMEN-EGIAZTATZAILEAREN IZENA ETA ZENBAKIA ETA EGIAZTAPEN-DATA.**

1.- INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMA: DATU OROKORRAK

1.1. AURKEZPENA

Donostiak 4 hondartza ditu: Zurriola, Kontxa eta Ondarreta, handienak eta ezagunenak, eta Santa Klara uharteko hondartza txikia, itsasbeheran sortzen dena.

Bakoitzak bere ezaugarriak eta erabiltzaile mota ditu, Kontxako eta Ondarretako hondartzetan askotarikoagoa dena; Zurriolan, berriz, publiko gaztea da gehienbat, hondartzako kirolen maitalea.

Bestalde, hirietako hondartzak dira, jende asko biltzen dutenak; beraz, zerbitzu eta ekipamendu ugari eman behar zaizkie.

Hondartzak babestu beharreko baliabide natural eta ekonomikoak direla kontuan hartuta, kutsadura prebenitzearen eta hondartzetan garatzen diren zerbitzu eta jardueren eta horien erabiltzaileen ingurumen-portaera hobetzearen aldeko apustua egin zen.

Helburu horiekin, Udaleko zerbitzu teknikoak 2000. urtean hasi ziren Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS) ezartzen, ISO 14001 nazioarteko arauaren irizpideei jarraituz. Ondoren, 2003an, IKS EMAS erregistroan inskribatu zen, eta, horretarako, sistema osoa Europako erregelamendu horren baldintzetara egokitu zen.

Dokumentu hau Donostiako Udaleko Zerbitzu Teknikoek hondartzen (Ondarreta, Kontxa, Zurriola eta Santa Klara uharteko hondartza) IKS integralari buruz argitaratzen duten ingurumen-adierazpena da.

Donostiako Udalak jendearen eskura jartzen du adierazpen hori webgunean, bulegoetan eta hondartzetako kabinetan:

Web orria:

<https://www.donostia.eus/ServiciosEspeciales/Playas.nsf/medioambientec?ReadForm&idioma=eus>

Hiri-Zerbitzuak (Hondartzak)

- Easo K., 43, 20006 Donostia (Gipuzkoa)
- Tf: 943 481070 / Faxe: 943 481092
- email.: gure_zinkunegi@donostia.eus
- Kontakturako pertsona: Gure Zinkunegi

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzua

- Mandasko Dukearen Pasealekua, 66, 20012 Donostia (Gipuzkoa)
- Tf: 943 483390 / Faxe: 943 470593
- email: ingurumena@donostia.eus
- Kontakturako pertsonak: Alaitz Iraola/Asun Yarzabal

1.2. TESTUINGURUA ETA ARRISKUEN ETA AUKEREN ANALISIA

Donostiako hondartzetako ingurumen-kudeaketako sistemak ISO 14001 ziurtagiria du 2001etik, eta EMAS, 2003tik. Araudi horiek berrikusi eta aldatu egin dira, eta gure IKSk jakin izan du eskatutako baldintza berrietara egokitzen. ISO 14001:2015 araudia eta EMAS IV berria argitaratu ondoren, gure IKSk bi sistemen azken baldintzak betetzen ditu.

Donostiako Udala, ingurumenaren arloan behintzat, hainbat proiektu, plan eta estrategiatan murgilduta dago, eta etorkizunean izango diren ingurumen-arazo eta -erronkei aurre egiten saiatuko da, bai tokian-tokian, bai mundu osoan:

- DSS Klima 2050: klima-aldaketaren aurkako epe luzerako estrategia diseinatzeko duen proiektua, udalerraren helburuak Parisko goi-bilerarekin lerrokatzea lortzen duena. Udalaren proiektu estrategikorik berriena da, eta oso interesgarria iruditzen zaigu hondartzen eremura eramatea.
- CO2: etxeak - CO2 familia-komunitatea 2010etik aurrera egiten ari den ekimen bat da, energia aurrezteko eta klima-aldaketarako konpromisoa duten hiriko etxeei zuzendua. Bertan, familia batzuek bat egiten dute proiektuarekin, eta konpromisoa hartzen dute beren etxean hainbat neurri ezartzeko, energia aurrezteko eta ingurumena gehiago errespetatzen duten energia-kontsumoko ohiturak hartzea sustatzeko, besteak beste.
- Klima-aldaketara egokitzeko plana: klima-aldaketaren inpaktuak saihestezinak direla zientifikoki egiaztatu eta nazioarteko komunitatean aitortzen denez, azken urteotan bultzada handia ematen ari zaie egokitze-politikei, eta horien ondorioen aurrean erantzunak planifikatzen ari dira.
- Hondakinen Dokumentu Zuzentzailea: plangintza-esparru espezifiko bat da, eta aukera ematen du 2018-2020 aldirako hondakinen arloko tokiko ekintza bideratzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren 2020rako Kontratazio Berdearen Programari atxikitzea. Programa horren bidez, erosketa eta kontratazio publikoko pleguetan ingurumen-irizpideak txertatzean, udalak berehalako eta 2020rako helburu batzuk betetzeko konpromisoa hartzen du.

Hondartzen IKSren alderdi interesatuak ugariak dira, eta horietako bakoitzak behar eta ikusle bereziak ditu hondartzei dagokienez. Gure sistemako eragile horiek guztiek zer espero duten sakon hausnartu ondoren, arriskuen eta aukeren azterketa egin da.

Alderdi interesdunek planteatutako beharren eta igurikimenen artean, batzuk aukera bat dira IKSrentzat, baina beste batzuk arrisku bihur daitezke. Arrisku eta aukera horiek identifikatzen dira, hondartzetan ingurumen-estrategia bat taxutzeko, arrisku eta aukera horiek kontuan hartuko dituenak.

A) Arriskuak: alderdi ezberdinek planteatu dituzten beharrian eta igurikimenen artean, honako hauek jo ditzakegu sistemaren arriskutzat:

- Klima-aldaketaren ondorioen ondorioak arriskutsuak izan daitezke hondartzaren jarraitutasunerako eta, ondorioz, hondartzari lotutako jardueretarako.

- Herritarrei informaziorik ez ematea arriskutsua da, udalak hondartzetan ezartzen dituen neurriak, arauak, aldaketak edo jarduketak ez onartzea ekar baitezake.
 - Erabiltzaileek zerbitzu-eskaera handia izatea arriskutsua izan daiteke, ingurumen-inpaktu handiagoak eragin baititzakete hondartzan (harea eta bainurako ura kutsatzea, baliabideak kontsumitzea, etab.).
 - Ekitaldiek, beste zerbitzu batzuek bezala, ingurumen-inpaktuak eragin ditzakete hondartzan.
 - Harearen garbiketa-maila oso handia eskatzea baliabideak alferrik kontsumitzeko arriskutzat jotzen da.
- B) Aukerak: era berean, planteatutako premia eta itxaropen horietako batzuk IKS hobetzeko aukera bihur daitezke:
- Erabiltzaileek badakite hondartzetan egiten diren jarduerak ingurumena errespetatu behar dutela.
 - Herritarrekin komunikazio handiagoa izateko beharra aukera bat da IKSri balioa emateko eta hondartzen ospea hobetzeko ingurumenaren ikuspegitik.
 - Ekitaldi handiak, halaber, erakusleihu dira herritarrentzat, eta, beraz, aukera ona hondartzetan ingurumen-jardunbide egokiak erakusteko.
 - Donostia Turismoak hondartza entzutetsuak izateko duen beharra aukera ona izan daiteke taldean lan egiteko eta herritarrei eta turistei IKS ezagutarazteko.

1.3. ESTRATEGIA BERRIA

Arriskuak eta aukerak aztertu ondoren, eta Donostiako hondartzen ingurumen-kudeaketako sistema gaur egun zer testuingurutan kokatzen den kontuan hartuta, IKSren zuzendaritzak ulertu du zenbait alderdi funtsezkoak direla eta estrategia berriaren zutabeak izan behar direla, IKSren helburu berrien abiapuntu:

- A) Donostiako Klima 2050 Ekintza Plana: kontuan hartuta hiriari zuzendutako estrategia oso landua eta hausnartua dela, eta guztiz bat datorrela KSAk klima-aldaketari aurre egiteko eta egokitzeko dituen beharrekin, uste dugu aprobetxatu egin behar dugula hiriarentzat egindako lan hori guztia, hondartzok ere hiriaren parte baitira, eta Klima 2050en helburuak honako hauek dira: Guztiz aplikagarriak honako eremu honetan: Ekintza Planaren helburuen zati txiki bat bakarrik hautatzea erabaki da, gure hondartzen problematikarekin eta beharrekin lotura handiena dutenak, hain zuzen ere:
- E.1: energia-iturriak deskarbonizatzea, aurreztea eta eraginkortasunez erabiltzea.
2030erako helburu kuantifikagarria: udalerrian (hondartzetan) energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak % 40 murriztea 2030ean.
 - E.2: kontsumoaren eta hondakinen iraunkortasuna eta deskarbonizazioa.
2030erako helburu kuantifikagarria: 2030erako udalerriko hondakinen % 80ren gaikako bilketa.
- B) Herritarrekiko komunikazioa: hondartzetako ingurumen-ziurtagirien balioa nabarmentzea (EMAS eta ISO 14001), eta ingurumen-arloko sentsibilizazioa. Komunikazioa aukera bat izan daiteke IKSri balioa emateko, hondartzen ospea hobetzeko eta hondartzetan egiten diren aldaketa edo jarduketan aurrean

erabiltzaileen jarrera positiboagoa sustatzeko. Hala ere, komunikazio txarra arriskutsua izan daiteke SGArenezat. Horregatik, funtsezkotzat jotzen da IKSren helburuen artean herritarrenganako eta beste alderdi interesdun batzuekiko komunikazioa hobetzea.

Beraz, Donostiako hondartzen IKSren helburu berriak honako hauek izango dira:

- **HE1: hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak % 40 murriztea 2030ean, 2017arekin alderatuta.**
- **HE2: hondartzetako hondakinen % 80 gaika biltzea 2030ean.**
- **HE3: herritarrekiko komunikazioa: hondartzetako ingurumen-ziurtagirien balioa nabarmentzea (EMAS eta ISO 14001) eta ingurumen-arloko sentsibilizazioa.**

1.4. IKS-REN IRISMENA

Ingurumena Kudeatzeko Sistemak hondartzen gainean sortzen eta kokatzen diren jarduera guztiak hartzen ditu barne, hau da:

- Hondartzen garbiketa eta ur gaineko hondakinen bilketa badian (FCC)
- Kabinetako garbiketa eta arreta (Galant)
- Sorospena eta salbamendua (BPXport)
- Ondarreta eta Zurriolako igerilekuak
- Toldo eta aulkien kudeaketa
- Instalazio orokor guztien mantentzea
- Bainatzeko uren eta hondartza-ingurunearen osasun- eta ingurumen-kontrola
- Tabernak:
 - . Ondarreta: 2 kiosko hondarrean
 - . Kontxa: hegaleko 1 eta 2 tabernak
 - . Zurriola: Tintin taberna eta hondarreko kioskoa

Zerbitzu horiek, dagozkien prozesuen bidez, hainbat enpresari esleitu zaizkie, eta enpresa horiek egiten dute jarduera, baina lan horien kontrola eta jarraipena udalak egiten du.

Argazkian, IKS zer esparru fisikori aplikatzen zaion ikus daiteke:



Aipatzekoa da aurten, 2020an, SARS-COV-2 sistemaren pandemiaren ondorioz, jasaten ari garen ezohiko egoera; horregatik, hondartzen denboraldia oso desberdina izan zen 2020an, eta horrela izaten jarraituko du aurten ere. Larrialdi-egoeraren ondorioz, aipatutako jarduera horietako gehienak ez ziren 2020. urtean izan, eta erabiltzaileek hondartza nola erabili ahal izango duten erabat baldintzatuko dute birusaren transmisioa prebenitzeko arau zorrotzek.

1.5. INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMAREN ARDURADUNAK


Donostiako Udala, Hiri Zerbitzuen bidez, hondartzetako udal zerbitzuak kudeatzeaz eta garatzeaz arduratzen da, besteak beste.

Bestalde, Ingurumen Osasuneko eta Jasangarritasuneko Zerbitzuko Biodibertsitate eta Ingurumen Kalitateko Atalak hondartzen osasun-ingurumeneko kontrola (bainatzeko urak eta hondartza inguruko eremua) eta IKSren kudeaketa eta sustapena egiten ditu.

Azpimarratu behar da hondartzaren gaineko azken lanak, kasu gehienetan, lehiaketa bidez aukeratu diren enpresek egiten dituztela. Hala, kanpoko langileek egindako zerbitzu nagusien artean, honako hauek ditugu:

- Hondakin bilketa: FCC
- Kabinen arreta eta garbiketa: Galant
- Sorospena eta salbamendua: BPXport

Hau da udal-organigrama, gai honetan esku hartzen duten zerbitzuei dagokienez:



1.6. POLITIKA

HONDARTZETAKO INGURUMEN POLITIKA:

Donostiako Udalak, toki-mailako erakunde publikoak, bere jarduera gizartearen garapen jasangarria bermatzeko moduan gauzatzeko helburuarekin, Donostiako hondartzetako ingurumen-portaera hobetzeko konpromisoa hartzen du.

Horretarako, Donostiako Udalak, hondartzen kudeaketari dagokionez, helburu nagusi hauek izango ditu:

- Une oro hondartzen kudeaketari aplikatu dakizkiokeen erregelamenduzko ingurumen-baldintzak eta bestelakoak betetzen direla ziurtatzea.
- Helburu batzuk ezartzea eta beharrezkoak diren baliabideez hornitzea, aldizka berrikusi eta eguneratuta, haien ingurumen-portaeraren etengabeko hobekuntza eta kutsaduraren prebentzioa ziurtatzeko.
- Osasun-arloan segurua den hondartza-ingurunea bermatzea, osasun-agintariak Koronavirus edo SARS-COV-2-aren aurkako borrokan ezarritako jarraibideak betetz eta betearaziz.
- Hondartzetan zuzenean edo esleipendunen bidez egindako jarduera guztien ingurumen-alderdiak integratzea, ingurumen-inpaktuak hobetzeko eta murrizteko faktore garrantzitsu gisa.
- Baliabide naturalen aurrezpena bilatzea, erabiltzaileak sentsibilizatuz, ura zentzuz erabiltzeko eta hondartzetan hondakinen gaikako bilketa sustatzeko.
- Prestakuntza- eta komunikazio-plan egokiak ezartzea, udaleko langileek eta hondartzekin zerikusia duten enpresa esleipendunetako langileek erakundearen politikaren, helburuen eta betebeharren berri dutela eta horiek ulertzen dituztela bermatzeko, betiere langile eta kontratista guztiak ingurumen-gaien erantzule direla kontuan hartuta, egiten duten jardueraren parte diren aldetik.

- Hondartzetako erabiltzaileekin komunikatzeko bideak hobetzea, kanpainen, webgunearen, postontzien eta egokitzen jotzen diren gainerako baliabideen bidez.

Ingurumen-politika hau Donostiako hondartzetako jarduera eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaie, baldin eta ohiko, ezohiko eta larrialdi-egoeretan funtzionatzen badute.



1.7. IKS-REN DESKRIBAPENA

Udalaren ustez, IKS tresna bat da hondartzetako zerbitzuen funtzionamendu egokia bermatzeko, bai eta ingurune horretan eskaintzen den zerbitzu bakoitza, bere eremuan, IKSren ingurumen-politikan ezarritakora egokitzen dela bermatzeko ere.

IKSk barne hartzen ditu antolamendu-egitura bat, erantzukizunen definizioa, dokumentazio bat garatzen duen eskuliburu bat (prozedurak, jarraibideak eta erregistroak) eta prozeduren eta jarraibideen ezarpen eraginkorra.

Honako dokumentu hauek osatzen dute IKS:

- Ingurumen-politika
- Ingurumen-kudeaketako eskuliburua
- Prozedurak
- Jarraibideak
- Erregistroak

1.8. AURREKONTU PARTIDAK

Udalaren Hiri Zerbitzuetako Plaien Programaren behin betiko aurrekontua urtero izan da:

	Hondartzetako aurrekontua	Udaleko aurrekontua	%
2014 urtea	2.191.028,98 €	291.242.790,84 €	0,75
2015 urtea	2.262.800,07 €	300.851.813,48 €	0,75
2016 urtea	2.261.697,28 €	313.654.879,17 €	0,72
2017 urtea	2.167.158,05 €	335.735.364,66 €	0,65
2018 urtea	2.534.468,69 €	343.461.980,60 €	0,74

2019 urtea	3.140.251,48 €	358.184.580,60 €	0,88
2020 urtea	3.253.704,00 €	352.585.234,00 €	0,92



1.9. INGURUMEN ALDERDI ESANGURATSUAK 2020

Ingurumen-inpaktua izan dezaketen gaiak edo alderdiak (energia-kontsumoa, hondakinen gaikako bilketa, ur-kontsumoa) detektatzeko metodo bat du IKSk, eta bertan urte bakoitzerako elementu horien emaitzak ebaluatu eta puntuatzen dira. Amaitutako urteko portaeraren arabera, kasu honetan 2020koa, ondorioztatzen da horietako zein hartuko diren ingurumenaren aldetik "esanguratsutzat", hau da, fokua jarri behar zaiela portaera hobetzeko eta ezarritako helburua lortzeko. Birziklatze-tasak eta CO2 isurketen murrizketak 2030erako ezarritako helburuak dituzte, eta horiek lortzen ez diren bitartean, adierazgarritzat joko dira haietan eragiteko eta hobekuntza-ekintzak programatzeko.

Baina, esan bezala, pandemiak hondartzen erritmoa eta funtzionamendu normala aldatu ditu, eta, beraz, datuak ere erabat aldatu dira. Kontsumoak handitzeak edo txikitzeak ez du adierazten pertsonen ingurumen-portaera aldatu denik, baizik eta COVID-19k hondartzen arauak eta funtzionamendua aldatu izanaren ondorio direla.

2020ko datuak aztertu ondoren, hainbat alderdi esanguratsu ikusi dira: hondarreko paperontzietako birziklatze-tasa, gas naturalaren kontsumoa erabiltzaileko eta uraren kontsumoa kabinetan erabiltzaileko udan.

2021 programak honako ekintza hauek biltzen ditu: Zurriolako hondartzako ZM eraikinean kabinetako eta komunetako autokontsumorako plaka fotovoltaiakoak instalatzeko proiektua; Kontxako kabinetako energia-auditorian jasotako ekintzak gauzatzea; hondarrean ontzi urdinak eta berdeak jartzea, kartoia/papera eta beira jasotzeko; taberna eta kabinetarako paperontzi selektiboak erostea udaleko eta EMAS logoekin estandarizatuz; Zero Plastik kanpaina: hondartzetako zenbait tabernetan botila berrerabilgarriak erosi ahalko dira iturrietako ura edateko eta itzulera sistema bat izango dute; eta urtero bezala EMAS bandera jarriko da Kontxako hondartzaren sarrera nagusian.



2.- INGURUMEN PORTAERA ETA PLANIFIKAZIOA EREMUKA

Hona hemen ingurumen-alderdi nagusiei buruzko informazioa:

- Azken urteetako portaera eta ingurumen-inpaktua.
- 2020ko programan hartutako neurrien betetze-maila eta lortutako emaitzak, programa onartzerakoan hautemandako ingurumen-alderdi esanguratsuei dagokienez

2.1.- HONDAKINAK

Hondartzetan bildutako hondakinak dira, bai itsasotik ekarritakoak, bai erabiltzaileek bertan behera utzitakoak, bai hondartzako mantentze-lanetan eta jardueretan sortutakoak.

Horien barruan, honako hauei buruzko datu banakatuak lortzen dira:

- Gaika bildutako hondakinak: papera, beira, ontziak, materia organikoa eta egurra.
- Hondakin arriskutsuak: instalazioen mantentze-lanetan sortuak (pintura erabilien ontziak eta hondarrak, ibilgailuen olioak, bateriak). Hondakin horiek baimendutako kudeatzaileei ematen zaizkie.
- Lohiak: kabinetako hondakin-uren ponpaketa-estazioen garbiketan sortzen dira.
- Gaika bildu gabeko hondakinak: gainerakoak.

Itsasotik ekarritako egurra gaika biltzen da eta balorizazio energetikora bideratzen da. Zatiki hori hondakin guztien eta gaikako bilketaren grafikoetan sartzen da, horrela hobeto islatzen baita udalak hondartzetara iristen diren hondakinak hobeto kudeatzeko egindako ahalegina, ahalik eta ehuneko txikiena zabortegira eramaten saiatuz. Nabarmendu behar da, hala ere, egur-zatiak fluktuazio handiak dituela klimatologiaren arabera, eta, ondorioz, hondakinen guztizko bolumena ere aldatu egiten dela.



Hondartzek hondakinei dagokienez duten ingurumen-portaera ezin da interpretatu pandemia-egoera bereziagatik; izan ere, neurtutako parametro guztiak murriztu dira: guztizko hondakinak, gaika eta ez gaika bildutakoak, eta zakarrontzietakoak nahiz harea garbitzean lortutakoak. Hondartzetan jende gutxiago egotea izan liteke murrizketa horien eragilea, baina ez dakigu zenbat pertsona bisitatu zituzten hondartzetan joan den udan; beraz, erabili beharreko adierazleak ez dira baliozkoak, normalean pandemiaren eragina kontuan hartu gabe erabiltzen baita joan-etorria zenbatesteko metodoa.


Horrela, ez da jakingo 2020ko denboraldian hondartzetan hondakinak prebenitzeko egindako jarduera ugariak zer eragin izan duten: hondarrean paper/kartoirako paperontzi urdinak jartzea, hondartzetako tabernetan plastikozko baxera berrerabilgarriak hornitzea, eta taberna horietan erabilera bakarreko plastikozko baxera/mahai-tresnak kentzea.

Nolanahi ere, eta datozen urteetako adierazpenetan pandemia-urteetako adierazleen balioak aipatu gabe utziko badira ere, adierazgarritasunik ez dutelako, hemen azalduko ditugu:

Hondarreko paperontzietako birziklatze-tasa murriztea:



Hondartzetan bildutako guztizko hondakinen kopurua (selektiboa zein ez selektiboa) udan erabiltzaileko murriztu egin da:



HONDAKINEN INGURUMEN-INPAKTUA

Hondartzetan sortutako hondakinen ingurumen-inpaktu nagusiak honako hauek dira:

- Lehengaien kontsumoa
- Hondakinak bildu ondoren kudeatzetik eratorritakoak: garraioa, lursailaren okupazioa amaierako helmugan, paisaiaren narriadura, usainak, etab.
- Izaki bizidunei eragindako afekzioak: hegaztiak, zetazeoak eta hondakin plastikoak irensten dituzten beste animalia batzuk, batzuetan heriotza eragiten dietenak, zuzenean edo zeharka.



2020RAKO AURREIKUSITAKO HELBURUAK HONDAKINEN ARLOAN

Helburu, jomuga eta ekintza hauek sartu ziren 2020ko programan:

- 2. helburua: hondartzetan hondakinen gaikako bilketa areagotzea.

- 2.1 jomuga: paperontzietako birziklatze-tasa % 5 handitzea, gutxienez, 2019. urtearekin alderatuta. Helburu hori betetzeko programatu ziren ekintzak ugari izan ziren:

2.1.1. Paperontzi urdinak eta berdeak jartzea hondarrean, kartoia/papera eta beira jasotzeko.

2.1.2. Tabernetan plastikozko edalontzi berrerabilgarrien banaketa.

2.1.3. Tabernetan plastikozko erabilera bakarreko edalontzi eta tresneria ez erabiltzea behin-betikotzea.

2020KO LORPENAK HONDAKINEN ARLOAN

Programatutako ekintza guztiak egin dira. Dena den, paperontzietako berziklatze tasa %37 gainetik jeitsi da, 2020ko COVID-19agatiko egoera berezi honen erruz ageri denez.

Helburua: Paperontzietako birziklatze-tasa gutxienez %5 handitzea			
2018	2019	bilakaera	Bete da?
%25,85	%35,92	+%38,95	Bai

2021RAKO PROGRAMA


- 2. helburua: hondartzetan hondakinen gaikako bilketa areagotzea.
 - 2.1 helburua: paperontzietako birziklatze-tasa %10 handitzea, gutxienez, 2019ko datuekin alderatuta (2020ko datuak ez dira erreferentzia bezala erabiliko). Helburu hori betetzeko programatzen diren ekintzak honako hauek dira:
 - 2.1.1. Hondarrean ontzi urdinak eta berdeak jartzea, kartoia/papera eta beira biltzeko.
 - 2.1.2. Taberna eta kabinetarako gaikako paperontzien erosketa, udaleko eta EMAS logoekin estandarizatuz.
 - 2.1.3. Zero Plastik kanpaina: hondartzetako zenbait tabernetan sareko ura edan ahal izateko botila berrerabilgarriak salduko dira itzulera sistema baten bidez.

2.2.- URA

Ur-kontsumoa kanpoko dutxetan (harea), kabinetan, garbiketa-geletan, IKSn sartutako tabernetan eta instalazioen eta hegalen garbiketan kontsumitutakoari dagokio.

Uraren parametroak asko murriztu dira (uraren guztizko kontsumoa, kabinetako kontsumoa eta kanpoko dutxetakoa). Adierazleak erabiltzaile guztien kopuruaren arabera

Grafikoak besterik ez ditugu erakutsiko:



Hondartzetan kontsumitutako uraren zati bat instalazioak garbitzearen ondorio bada ere, beste zati garrantzitsu bat erabiltzaileei zuzenean egotz dakieke, eta hor eragin daiteke gehien neurri teknikoen bidez (emaria murrizteko gailuak, araututako denbora-pultsoreak) eta sentsibilizazio-neurrien bidez.

Erabiltzaileen ingurumen-portaera hobetzeko aholkuak honako hauek dira:

- Edateko urarekin jolastu gabe, itsasoko ura erabil daiteke horretarako.
- Kanpoko dutxak azken garbiketarako bakarrik erabiltzea, itsasoko ura freskatzeko erabiliz.
- Dutzak kabinetan behar baino gehiago ez luzatzea.

UR-KONTSUMOAREN INGURUMEN-INPAKTUA

Hondartzetako edateko uraren kontsumoak hainbat inpaktu ditu:

- Garraiorako energia-kontsumoa jatorritik (Añarbeko urtegia)
- Produktu kimikoen kontsumoa, iturrietako edateko uraren kalitatea lortzeko. Ez da ahaztu behar dutxetako eta txorrotetako ura edateko modukoa dela, baina baita zoruak garbitzeko erabiltzen dena ere, komunean, eta jolasteko eta freskatzeko erabiltzen dena, sarekoa erabiltzen bada, itsasokoa erabili beharrean.

INGURUMEN ALDERDIAK BALORATZEKO ADIERAZLEEN ALDAKETAK 2019AN

IKSren estrategiak ez du lehentasuntzat jotzen uraren kontsumoa aurrezte, eta, beraz, ez dago ingurumen-alderdi horretarako helbururik, eta, beraz, ez da hobekuntza-ekintzarik programatzen.

Nolanahi ere, ingurumenean eragina dutela kontsideratuz, hondartzetako ur-kontsumoa kontrolatzen da adierazle hauen bidez:

- Sareko ur-kontsumoa urte/erabiltzaile (l/erabiltzaile)
- Udako kanpoko dutxen ur-kontsumoa/udako erabiltzaileak (l/erabiltzaileak)
- Ur-kontsumoa udako kabinetan/udako erabiltzaileak (l/erabiltzaileak)





2.3.- ENERGIA

Hondartzetako energia-kontsumoaren barruan kabinetako elektrizitatearen eta gas naturalaren batura sartzen da, beharrezkoa baita argiztapenerako, motorretarako (igogailuak, aireztapena, sarrerako tornuak, ordenagailuak), ur sanitarioa berotzeko eta antzekoetarako.

Kontsumo horretan, zati bat instalazioen funtzionamenduari eta mantentze-lanei zor zaie, baina beste zati txikiago bat aldakorra da, erabiltzaileen arabera. Bi eremuetan hobekuntzak egin daitezke; alde batetik, instalazioari ekipo eraginkorragoak eta kontrolagarriagoak emanez, eta, bestetik, erabilera-jardunbide egokiak ezarriz, bai kabinetako arretaren arduradunengan, bai erabiltzaileengan.

Argi dago gas naturalaren eta elektrizitatearen kontsumoa asko jaitsi dela zifra absolutuetan, udan eta urtearen gainerako zati handi batean dutxak erabiltzea debekatuta dagoelako. Hala ere, kabinetako erabiltzaile/gas naturalaren kontsumoaren adierazlea asko igotzen da kabinetako ia jenderik ez dagoelako, baina lehen esan bezala, datu hori ez da esanguratsua egungo egoeran.



ENERGIA KONTSUMOAREN INGURUMEN-INPAKTUA

Energia-kontsumoaren inpaktua jatorrian zein hondartzetan (gas-errekuntza) eta, neurri txikiagoan, garraioan sortzen den prozesuan gertatzen da, eta honako arrazoi hauengatik gertatzen da:

- Lehengai ez-berriztagarrien kontsumoa
- Atmosferaren kutsadura
- Klima-aldaketa
- Lurzorua eta ura kutsatzeko arriskua
- Garraio-lineen inpaktuak

2020RAKO AURREIKUSITAKO HELBURUAK ENERGIA ARLOAN

2020ko programak honako helburu, jomuga eta ekintza hauek zituen ingurumen-alderdi horretarako:

- 1. helburua: hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak %40 murriztea 2030ean 2017arekin alderatuta.

1.1 jomuga: hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isurketak %3 murriztea 2019. urtearekin alderatuta. Horretarako, honako ekintza hauek egitea erabaki zen:

1.1.1. Zurriolako hondartzako ZM eraikinean kabinetako eta komunetako autokontsumorako plaka fotovoltaiakoak instalatzeko proiektua.

1.1.2. Kontxako hondartzetako kabinetan auditoria energetikoa egitea.

1.1.3. Kontxako kabinetan gasezko galdara aldatuko da potentzia eta efizientzia gehiagoko beste bategatik.



2020KO LORPENAK ENERGIA ARLOAN

Programatutako ekintza gehienak egin dira, zeatz esanda Kontxako kabinetako auditoria eta kabina hauetako galdararen ordezkapena. Plaka fotoboltaikoak ezin izan dira instalatu oraindik, Kostako Ministerioaren baimenaren zai baikaude.

Adierazle honen datua logikaz kanpo dago guztiz, kabinetako erabiltzaile ezak adierazlea ikaragarri igotzen baitu.

Helburua: Kabinetan kontsumitutako gas naturala/erabiltzaileko (kg/urte) erangindako CO2 isurketak % 3 murriztea 2019. urtearekin alderatuta			
2019	2020	bilakaera	Bete da?
632,51	2317,16	+%266	Ez

2021RAKO PROGRAMA

2021 Programak helburu, jomuga eta ekintza hauek ditu:

- 1. helburua: hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak %40 murriztea 2030ean 2017arekin alderatuta.
- 1.1 jomuga: hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isuriak %6 murriztea 2019ko datuekin alderatuta (2020ko datuak ez dira erreferentziatzat erabiliko, baizik eta 2019koak aurreikuspena %6ra igota). Horretarako, 2020an egitea lortu ez zen ekintza programatu da, behin Ministerioaren baimena lortuta ekintza hau exekutatu ahal izango delako. Lehengo urtean egindako auditoria energetikoan agertutako emaitzak exekutatzea ere aurreikusten da:

1.1.1 Zurriola hondartzako ZM eraikinean kabinetan eta zerbitzuetan autokontsumorako plaka fotovoltaikoak instalatzeko proiektua.

1.1.2 Kontxako kabinetako energia-auditorian jasotako ekintzak gauzatzea

2.4 INGURUMEN INFORMAZIOA

Herritarrak komunikatzea eta sentsibilizatzea funtsezkotzat jotzen da IKSren estrategia berriaren barruan; izan ere, helburu nagusietako bat da.

- 3. helburua: herritarrekiko komunikazioa: hondartzetako ingurumen-ziurtagirien balioa nabarmentzea (EMAS eta ISO 14001) eta ingurumen-arloko sentsibilizazioa.

- 3.1. helburua. Erabiltzaileek ingurumen-ziurtagiriei buruz duten ezagutza hobetzea eta ingurumen-arloko sentsibilizazioa hobetzea. Horretarako, honako ekintza hauek proposatu ziren:

3.1.1. EMAS logotipoa duen bandera jartzea Kontxako hondartzako sarrera nagusiaren ondoan.

Programatutako ekintza burutu zen.

2021 Programan, berriro ere ekintza hori progratu da urtero egiten baita: EMAS logotipoa duen bandera jartzea Kontxako hondartzako sarrera nagusiaren ondoan.

Twitter bidez hondartzen eta itsasoko uraren asteroko ikuskapenen eta analisien emaitzen berri ematen jarraituko da.

2.5. BAINATZEKO UREN KALITATEA

Udalak bainatzeko uraren kalitateari dagokionez duen betebeharrak zuzena beharrezko kontrolak eta analisiak egitera eta herritarrei emaitzen berri ematera mugatzen da, behar diren neurriak hartuz, hala badagokio.

Osasunaren eta ingurumenaren kontrola (ikuskapena eta laginak hartzea) Ingurumen Kalitatearen eta Iraunkortasunaren Zerbitzuko Biodibertsitatearen eta Ingurumen Kudeaketaren Udal Atalak egiten du urte osoan zehar, eta emaitzak astero jakinarazten dira hondartzen udal-webgunean eta kabinetako iragarki-taulan.

Halaber, bainu-denboraldiaren amaieran, datuak hondartzen kalitatearen estatuko sisteman (NAYADE) sartzen dira. Sistema hori eskuragarri dago Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioaren webgunean.

Azkenik, uda sasoian Gipuzkoako Foru Aldundiaren hondartzen webgunean ere sartzen da emaitza, Gipuzkoako gainerako hondartzekin batera.

Aplikatu beharreko legeria 1341/2007 Errege Dekretua da, bainatzeko uren kalitatea kudeatzeari buruzkoa, eta bertan ezartzen dira bete beharreko baldintzak eta parametroak.

Azken urteetako emaitzak erakusten dira:

	Puntua	2016	2017	2018	2019	2020
Zurriola	Ulía	☺	☺	☺	☺	☺
	Erdialdea	☺	☺	☺	☺	☺
	Urumea	☺	☺	☺	☺	☺

Kontxa	Nautikoa	☺	☺	☺	☺	☺
	Erdialdea	☺	☺	☺	☺	☺
	Lore Tope	☺	☺	☺	☺	☺
Ondarreta	Erdialdea	☺	☺	☺	☺	☺
	Tenis	☺	☺	☺	☺	☺
Santa Klara uhartea	Erdialdea	☺	☺	☺	☺	☺

☺ bikaina da bainurako uraren kalitatea

2.6. INGURUMEN KUDEAKETA SISTEMAREN HOBEKUNTZAK

Duela urte batzuetatik hona, beste jarduera batzuk ere egiten ari dira:

- **Prestakuntza-hitzaldiak** kontratatutako enpresa nagusietako langileentzat (FCC, BPXport eta Galant). IKS bat, ISO 14001 bat eta EMAS bat zeudela jakinarazi zitzairen, bai eta kasu bakoitzean eragin zuzenena izan diezaieketen jarraibideak ere.
- **Aurkezpena Ingurumeneko Aholku Kontseiluari (IAK):** urtero aurkezten da hondartzen Adierazpena Kontseilu honetan, IKSren bilakaeraren berri emateko eta, hala badagokio, bertan ordezkaturik dauden gizarte-eragileek egokitzen jo ditzaketen iradokizunak edo galderak jasotzeko. Hala, inoiz kudeatu dira han planteatutako gaiak (su artifizialeko bainatzeko urei eragitea, harea toldoz okupatzea).
- **Tokiko gobernu-batzarra** informatu IKSaren garapenaz auditatutako Urteko Deklarazioa aurkeztuz. Horrela, IKSari buruz informatu zaiela ziurtatzeaz aparte, aldaketa edo ekarpen berrik egitea proposatzen zaie, hurrengo urteko Deklarazio edo Programarako.

3.- LEGEZKO BETEKIZUNAK ETA HONDARTZEN IKS-ARI APLIKA DAITEZKEEN BESTE BATZUK

IKSren barruan metodo bat dago hondartzen eragiketei aplikatu beharreko legeria betetzen dela egiaztatzeko eta ziurtatzeko, bai eta urtean zehar ager daitezkeen nahitaez bete beharreko betekizun berriak detektatzeko ere.

Jarraian, erakundeak IKSren irismenaren barruan bete behar dituen baldintza nagusiak erakusten dira:

Ingurumen alderdia	Legezko betekizunak
Hondakinak	Hiri hondakinak kudeaketa: • Birziklatze- edo balorizazio-sistema bat ezartzea, edo lehendik dagoen batean parte hartzea • Gaikako bilketa ezartzea eta ontzien erabilera murrizteko bultzada aktiboa. Hondakin arriskutsuak: • Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistrotik salbuestea • Hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzaileari ematea. Hondakin ez-arriskutsuak: • Hondakinak kudeatzaile baimenduari entregatzea kasu bakoitzean (sanitarioak, EEHak, elektrikoak eta elektronikoak) Honako hauen kudeaketa egokia: - Hondartzetan bildutako hondakin sanitarioak edo antzekoak (xiringak) - Instalazioetan sortutako hondakin elektrikoak eta elektronikoak - Eraikuntza- eta eraispn-hondakinak, kabinak eta sarbideak birmoldatzeko obra txikietan sortuak. Araudia: 22/2011 Legea, 2011ko uztailaren 29koa, Hondakinei buruzkoa. 833/88 ED eta 952/97 ED (aurrekoa aldatzen du) 88ko uztailaren 30ean eta 97ko ekainaren 20an, 49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena. 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa. 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa. 21/2015 Dekretua, martxoaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzkoa. Hiri hondakinak biltzeko udal ordenantza Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, plastikozko produktu jakin batzuen ingurumen-inpaktua murrizteari buruzkoa. COM/2018/340 amaiera.

Kostaldea	Itsasertzen urteko baimena, itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko (hondartzetako harea). Araudia: 22/1988 Legea, uztailaren 22koa, Kostaldeei buruzko 2/2013 Legea eta 876/2014 Errege Dekretua, Kostaldeen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
Ura	Hondakin-urak isuri aurretik tratatu beharko dira, eta dagokien baimena izan beharko dute; kasu horretan, kabinetatik udal-saneamenduko sarera ponpatu ondoren isurtzen dira. Ponpaketaren hobian lohiak pilatzen dira, eta urtean behin kendu eta Añarbeko hondakin-uren araztegira eramaten dira. Bainatzeko urak: bainatzeko uraren kalitateari buruzko datuak jakinaraztea organo eskudunari (Ministerioa) eta erabiltzaileei, beharrezkoa izanez gero neurriak hartuz (kalitate txarra). Araudia: 1341/2007 Errege Dekretua, urriaren 11koa, bainatzeko uren kudeaketari buruzkoa. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
Hondartzen erabilera	Donostiako hondartzen erabilera eta aprobetxamenduari buruzko Ordenantza
Legionelosisia	Ur bero sanitarioko instalazioen mantentze-lan sanitarioak. Araudia: 865/2003 Errege Dekretua, 2003ko uztailaren 18koa, legionellosiaren kontrolari buruzkoa.
Atmosferara igorpenak	Kabinetako ur bero sanitarioko galdarak berrikustea eta mantentzea. Hondartzetan lan egiten duten ibilgailuen azterketa teknikoak (IAT).
Zarata	"CE" etiketa hondartzetan aire zabalean lan egiten duten eta aplikatzen zaien makinetan, erosketa-urtearen arabera. Araudia: 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa



4.- ERANSKINAK

4.1. INGURUMEN ALDERDIAK IDENTIFIKATU ETA EBALUATZEKO METODOA

Aldian behin, Donostiako hondartzetako IKSko arduradunek hondartzetan egiten diren eragiketa guztien alderdi garrantzitsuenak identifikatzen dituzte, hau da, ingurumenean inpakturen bat eragiten dutenak, eta berririk agertu den aztertzen dute. Ondoren, identifikatutako guztiak ebaluatzen dira esanguratsuak direnak hautatzeko, eta horiek kontzentratuko dituzte haien eragina murrizteko ahaleginak.

Alderdien Identifikazioan, batetik, hondartzetan ematen diren zerbitzuak eta jarduerak hartzen dira kontuan, eta, bestetik, eragin ditzaketen zuzeneko edo zeharkako inpaktuak. Horien barruan, zuzeneko alderditzat hartzen dira erakundeak kontrolatzen dituenak, eta zeharkakoak, berriz, erabateko kontrolik ez dutenak.

Alderdi bat esanguratsua den ala ez zehazteko, Garrantzi Maila (NS) ezartzen da, kasuaren arabera kalkulatzen dena:

Alderdi zuzenak	Ohiko eta ez-ohiko egoerak	NS= Magnitudea x arriskugarritasuna
	Istripuak edo emerjentziak	NS= Gertatzeko probabilitatea x Ondorioen larritasuna
Alderdi ez-zuzenak		NS=Eragin maila x Hobetzeko aukera

Kasu guztietan, irizpide bakoitza 1-3 artean baloratzen da; beraz, emaitzak beti 1-9 artean egongo dira, eta honako hauek baloratuko dira:

	Esanahi-maila	
>6	ALTUA	Alderdi Esanguratsua
2, 3, 4	ERTAINA	Alderdi ez-esanguratsua
1	BAXUA	

Urteko programan alderdi esanguratsu horiei buruzko ekintzak sartu nahi dira, haien portaera hobetzen eta inkurunean eragiten duten inpaktua murrizten laguntzeko.

4.2. ADIERAZLEEN KALKULUAREN ALDERDI METODOLOGIKOA

Hondartzetako erabiltzaileen kopurua: urte osoko hondartzen okupazio-bolumenaren estimazioa egiten da, hainbat faktore kontuan hartuta: Meteorologia (egun eguzkitsua, lainotsua edo euritsua), hondartzaren azalera eta denboraldiak (altua edo udara, ertaina eta baxua). Horretarako, AEMETen plubiometria, intsolazio eta hodei datuak lortzen dira.

Kontabilizatutako erabiltzaile bakoitza hondartzako sarrera edo egonaldi bati dagokio.

Bestalde, energia-kontsumoetan, kabinetako erabiltzaileen kopurua bakarrik hartzen da kontuan, eta bertan kontsumitzen da erregistratutako energia.

Horietan, tornuen bidezko sarrera-kontrolerako sistema bat dago, erabiltzaile-kopuru zehatza ematen diguna.



Egindako kalkuluen eta tornuen datuen arabera, jende asko bildu da:

	2017	2018	2019	2020
hondartzako erabiltzaile kopurua udan	2.588.125	3.065.350	3.368.350	3.285.025
hondartzako erabiltzaile kopurua urtean	2.723.269	3.189.047	3.481.081	3.372.272
Kabinetako erabiltzaile kopurua urtean	139.418	164.109	162.403	16.085

Datu horiek 2020an bizi izandako egoera arraroa kontuan hartuta interpretatu behar dira; beraz, ez dira oso fidagarriak, zenbatespen-metodoa pandemiarik gabeko egoera normal bati baitagokio.

Ez dira sartzen EMAS Erregelamenduan aipatutako biodibertsitate-adierazleak, hondartza horien ingurunea oso hiritarra eta antropizatua delako, eta ondorioz hondartza inguruko bioazniztasunean eragin handiagoa du faktore honek hondartzetan ematen diren zerbitzuek baino. Horregatik, ez da biodibertsitate-adierazlerik kalkulatu hondartzen ingurumen-adierazpen honetan.

4.3. IKS-REN INGURUMEN PORTAERAREN BESTE ADIERAZLE BATZUK

ERAKUNDEAREN LANGILE KOPURUA

Langile kopurua aldakorra da, eta urteko gainerako egunetan baino handiagoa da bainu-garaian (ekainaren 1etik irailaren 30era). **45 langile**, batez beste.

HONDAKINAK

	2017	2018	2019	2020
Hondakinak denera urteko (T)*	784,66	754,78	713,55	346,80
Hondakinak denera urteko /erabiltzaileko (T/erab.)	0,288	0,237	0,205	0,103
Paperontzietan gaika jasotako hondakinak (T) udan	47,01	57,22	72,79	46,68
Paperontzietan ez-gaika jasotako hondakinak (T) udan	483,82	341,58	294,46	191,30
Ontzi hondakinak (T)	46,77	56,34	71,01	36,70
Hondakin organikoak (T)	-	-	1,35	9,98
Hondakinak: papera eta kartoia (T)	0,10	0,29	0,16	0
Hondakinak: beira (T)	0,15	0,59	0,27	0
Egurra urteko (T)	69,8	127,11	128,11	47,22
Birziklatze tasa hondartzetako paperontzietan (%)	22,64	25,85	35,92	22,44
Lohiak(T)	5,36			
Hondakinak denera (T) /langileko	17,43	16,77	15,86	7,71
Hondakin arriskutsuak (T)	0,32	0,42	0,10	0,14
Hondakin arriskutsuak (T)/ langileko	0,0071	0,0093	0,0022	0,0031

*Taulan agertzen diren urteko (t) hondakin guztien artean zur-zatiak eta kabinetako lohiak daude, hondakin horien kudeaketak IKSren portaera ona islatzen baitu, bildutako hondakin guztiak birziklatzea lehenesten baitu, eta zuraren kasuan, balorizazio energetikoa.

Hondartzetako jardueran sortutako **hondakin arriskutsuak** dira kabinak eta hegala mantentzeko erabiltzen diren pintura-hondarrak eta -poteak, eta hondartzetan lan egiten duten ibilgailuak mantentzeko erabiltzen direnak (hondakinak biltzea, joan-etorriak egitea).

Algak kostaldeko eta hondartzako dinamikaren zati dira; horregatik, batzuetan erretiratu egiten dira erabiltzaile batzuen artean sortzen dituzten kexengatik, baina ez dira hondakin gisa kontabilizatzen IKSn.

Bestalde, kabinetako hondakin-urak saneamendu-sarea baino maila baxuagoan daudenez, kubo batean pilatzen dira sarera ponpatzeko. Bertan, urtero husten diren lohiak edo lohiak metatzen dira, hondakin-uren araztegia tratatzeko.



URA

	2017	2018	2019	2020
Ur-kontsumoa urteko (m ³)	49.558	61.923	53.557	34.617
Ur-kontsumoa urteko /langileko (m ³)	1.101,3	1376,1	1190,2	769,3
Ur-kontsumoa urteko (l) /hondartzetako erabiltzaileko	18,20	19,42	15,38	10,27
Ur-kontsumoa kanpoko dutxetan udan/erabiltzaileko udan (l/erab.)	6,45	8,33	5,77	4,59
Ur-kontsumoa kabinetan udan/erabiltzaileko udan (l/erab.)	131,15	134,56	113,45	763,24

ENERGIA: ARGINDARRA

	2017	2018	2019	2020
Argindar kontsumoa urtean (MWh)	100,643	96,881	97,738	59,528
Argindar kontsumoa urtean (MWh)/langileko	2,24	2,15	2,17	1,32

CO2 ISURKETAK ATMOSFERARA

	2017	2018	2019	2020
BEG isurketak(T CO ₂ e) urteko	69	101	103	37
BEG isurketak (T CO ₂ e) urteko/langileko)	1,53	2,25	2,29	0,83
BEG isurketak (Kg CO ₂ e) urteko/kabinetako erabiltzaileko	0,49	0,62	0,63	2,32

Berotegi-efektuko gasen isuriak kalkulatzeko, hondartzetako kabinetako gas-kontsumoak hartzen dira kontuan (kontsumoa m³ x TJ/n m³ x tCO₂/tJ bihurketa-faktorea)

4.4. 2021erako PROGRAMA:

COVID-19ren pandemia dela eta, 2020ko play-denboraldia aurrekoen desberdina izango da; izan ere, udan Donostiako hondartzek eskaintzen dituzten zerbitzu asko aurrekoak ez dira erabilgarri egongo. Egoera horren ondorioz, 2020ko Programan ekintzak lortzea mugatuagoa da.

Nolanahi ere, programa bat egin da ezarritako helburuak betetzera bideratutako ekintzekin:

			Arduraduna	Baliabideak	Adierazlea
1. helburua	Hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isurketak %40 murriztea 2030ean 2017arekin alderatuta.				
1.1 jomuga	Hondartzetako energia-kontsumoaren berotegi-efektuko gas-isurketak murriztea.				%6<2019
1.1.1	Zurriola hondartzako ZM eraikinean kabina eta zerbitzuetan autokontsumorako plaka fotovoltaiakoak instalatzeko proiektua .		M. Lasa eta A. Iraola	18.179,78 €	
1.1.2	Kontxako kabinetako energia-auditorian jasotako ekintzak gauzatzea		M. Lasa eta A. Iraola	19.747,00 €	
2. helburua	Hondartzetako hondakinen %80 gaika biltzea 2030ean.				
2.1 jomuga	Hondarreko paperontzietako hondakinen gaikako biltzea handitzea				%10>2019
2.1.1	Hondarrean ontzi urdinak eta berdeak jartzea, kartoia/papera eta beira biltzeko.		G. Zinkunegi	0 € (Garbiketaren enpresa esleipendunak bere gain hartzen du).	
2.1.2	Taberna eta kabinetarako gaikako paperontzien erosketa, udaleko eta EMAS logoekin estandarizatuz.		A. Iraola	2.776,95 €	
2.1.3	Zero Plastik kanpaina: hondartzetako zenbait tabernetan sareko ura edan ahal izateko botila berrerabilgarriak salduko dira itzulera sistema baten bidez.		V. Esnaola eta A. Iraola	1.179,75 €	
3. helburua	Herritarrekiko komunikazioa: hondartzetako ingurumen-ziurtagirien balioa nabarmentzea (EMAS eta ISO 14001) eta ingurumen-arloko sentsibilizazioa				
3.1 jomuga	Erabiltzaileek ingurumen-ziurtagiriei buruz duten ezagutza hobetzea eta ingurumen-arloko sentsibilizazioa hobetzea				2020 baino hobe
3.1.1	EMAS logoa duen bandera jartzea Kontxako hondartzako sarrera baten ondoan.		A. Iraola	862,95 €	

5.- ERAKUNDEAREN BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK:

Halaber, erakundeak ingurumen-ziurtagiriak ditu beste udal-zerbitzu batzuetan: Ekoscan Ingurumenaren Kalitatearen eta Iraunkortasunaren Zerbitzuan eta Cristinaenea Fundazioan; eta Ecolabel Uliako udal-aterpetxean.

Donostia Kulturaren DK Berdea konpromisoa nabarmendu behar da. Bertan, bere egiten du larrialdi klimatikoaren deklarazioa, eta ingurumenaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren aldeko konpromiso irmoa erakusten du. Jarduera-ardatzetako bat ekitaldietan oinarritzen da, eta ekintza ugari sartzen ditu: edalontzi biodegradagarriak edo berrerabilgarriak erabiltzea, sorgailu elektrikoak erabiltzea saihestea, plastikoen erosketa murriztea, hondakinen zatiak dagokien paperontzira botatzea, ekitaldi handietarako garraio publikoa sustatzea, "Green Team" taldea (berdeak) sortzea jai-guneetan sentsibilizatzeko, kutsadura akustikoa neurtzea eta murriztea.

6.- INGURUMEN EGIAZTATZEA

Ingurumenarekiko erantzukizuna betetzeko, erakundeak bere gain hartzen du gizartearekiko eta bere jardueretan interesa duten pertsona-taldeekiko elkarrikeraketa. Horrela, herritarren galderak eta iradokizunak jaso, baloratu eta erantzuteaz gain, urteko hasierako adierazpenaren berri ematen zaio Ingurumeneko Aholku Batzordeari, hiriko hainbat elkarte ordezkaturak baitaude bertan. Kontseilu horretako kideek adierazpenaren edukiari buruzko iradokizunak eta/edo galderak egiteko aukera dute, eta horiek kontuan hartzen dira. Ondoren, Kontseiluak onartutzat jotzen ditu.

Era berean, Zuzendaritzak Udalaren web orriaren bidez helaraziko die adierazpen hau alderdi interesdun guztiei, eta jendaurrean egongo da udal bulegoetan (Hiri Zerbitzuen eta Ingurumen Kalitatearen eta Iraunkortasunaren bulegoetan).

Ingurumen-adierazpena urtean behin egingo da. Beraz, hurrengo 2019koa izango da, eta 2021eko lehen seihilekoan argitaratuko da.

Honako hauek egindako aitorpena:




Alaitz Iraola Garin
Ingurumen Kudeaketa Sistemaren Arduraduna

Nork onartua:



Josu Benaito
IKSren Zuzendarikidea
Osasun eta Ingurumen Zuzendaria



José Ramón Renilla
IKSren Zuzendarikidea
Mantenu eta Hiri Zerbitzuen Zuzendaria

**INGURUMEN ADIERAZPEN HORI BALIOZKOTUTZAT JOKO DA SOILIK DAGOKION
EGIAZTAPEN ADIERAZPENAREKIN BATERA AURKEZTEN BADA**